

EZIKETA

JUANTXU-TXIKI

Nor dan Juantxu-txiki?

Zeure seme-alabak dozuz Juantxu-txiki.

Orreik azi eta ezi, orra or zure lanik ederrena eta garrantzi audienekoa. Baita zailena eta gaitxena be.

Lan ori zelan bete?

* * *

Chesterton ingles eta idazle ospetsuak onelan galde egin eutson Urlia jaunari:

—Juantxu-txikiri latiña irakatsiko ba'jako, zer da irakasleak lenengo ezagutu bear dauen gauzea?

—Latiña irakastekotan, latiña izan bearko da gauza ori...

—Ez, jauna, Juantxu-txikiri latiña irakasteko, Juantxu-txiki berbera da irakasleak lenengo ezagutu bear dauan gauzea.

Juantxu-txiki zer dan ez ba'daki, zelan moldatuko da Urlia jauna zerki orreri latiña irakasteko? Ez dau jakingo nondik ekin buru aretan latiña sartzeko, naiz-eta latiña ondo jakin berak.

* * *

Gurasoek Juantxu-txiki ezi bearko dabe; baiña, ori egin aal izateko, eta Juantxu-txiki ezitzen asi orduko, aurra ezagutzen alegindu bear.

Ez da lan erreza.

Juantxu-txiki gauza ezberdin askoren batasuna dogu-ta: mineralak baditu beragan, goruntz zugaitzen antzera azten da, animaliak lez mogitzen eta sentitzen, aingeruek lez pentsa eta maite...

Ezaupide orren bidetik egin dagiguzan alkarrekin urrats batzuk.

* * *

Asieratik esan bear doguna auxe da: zer ez dan Juantxu-txiki.

Juantxu-txiki ez da gizon koskor bat.

Ez dala gizontxu bat, alegia: ez dala zure antzeko eta bardiñeko bat neurri murrizagoan, neurri motzagoan.

Ez, orixe.

Ezkurra ez da aritz txiki bat.

Arrautza ez da txori txiki bat.

Xomorroa ez da tximelet txiki bat.

Aritza ezkurretik sortuko da; baiña, ez da aritz txiki bat gure ezkurra. Txoria arrautzatik eta tximeleta (pinpilinpauxa) xomorrotik; ez dira, baiña, gauza bardiñak.

Umea ez da gizon txiki bat.

Ume orretatik sortuko da gizona egunen batean; baiña, gaur ez dira bardiñak umea eta ume orrengandik sortuko dan gizon-emakumea, guk askotan alan uste izan arren.

Aurra ez da gizona edo emakumea, egunen baten gizon-emakume izatera elduko diran indar eta aalmenak baiño. Gaurko indar oneik ekarriko dabe biarko gizon-emakumea...

* * *

Gaurko umea, biarko gizon-emakumea.

Baiña, gaur, ume oraindik.

Gu lakoa ez dalako, izaten doguz ainbeste eragozpen gure umea ezagutzeko. Ezagutu nai ba'dozu, begira atzeraka zure ume-denporara.

Zelakoa ziñan zu orduan; alakoa da gaur zure Juantxu-txiki.

Zure bizitzan atzera joan ezin ba'dozu, entzun besteak zer esaten dautzuen eta irakurri zer idazten daben. Zuri laguntzearren saiaturko gara.

Ez aaztu, ba, ezaupide ori lortzeko biderik onena zeure barruan dozula.